

2009ko urtarrila / enero 2009

www.3sbizkaia.org

Euskararen kudeaketa erakundeetan *La gestión del euskera en las organizaciones*

Euskara geroz eta gehiago kezkatzen gaituen gaia da. Administrazio, enpresa, erakunde eta hiritarrok aitortzen dugu kezkatuta gaudela euskararen egungo eta etorkizuneko egoerarekin.

Ondorioz, euskara kudeatzea ezinbestekoa gertatzen ari da gure sektoreko erakundeetan, erakundearen jardunaren kalitatea hobetzeko bidean.

Euskara Plana euskara erakunde mota ezberdinetan kudeatzeko tresna egoki eta eraginkorra da: euskararen presentzia eta erabilera handitzen laguntzen du, erakundearen neurria egina dago, (dena dela, ez bada abiatzen, aldeko hainbat ekintza soilak ere aurrera eramán daitezke).

Un Plan de Euskera ayuda a incentivar el uso y la presencia del euskera integrándolo en la cultura de la organización. Cada Plan puede ser ajustado a la realidad de cada organización pudiéndose acometer acciones parciales.

Euskara erakundeetan txertatzeko arrazoiak

- Bere ingurunean sustraituriko erakundearen irudia islatzen du.
- Proiektu berritzaileei ekiteko erakunde berritzailearen irudia islatzen du.
- Bere zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituen erakundeak kalitate handiagoa ari da eskaintzen, zerbitzu pertsonalizatuagoa, kultura hurbilpena eta prestakuntza handiagoa adierazten ari baita.
- Ezaugarri bereizlea da etengabeko hobekuntzaren kulturaren barruan.
- Euskal gizarte gero eta elebidunagoa da, eta oso aintzat hartzen ditu euskaraz eskaintako zerbitzuak.
- Erakundeko pertsonen nahiekin bat datorren neurrian, haiek asetzen laguntzen du.

La organización que apuesta por el Plan de Euskera transmite un compromiso con el euskera y el entorno, una imagen innovadora y le permite ofertar unos servicios más personalizados que satisfacen tanto a las personas usuarias como a las personas que integran la organización.

Nola txertatu Euskara Plana erakundeetan (Faseak)

1. Fasea: Zuzendaritzaren konpromisoa
2. Fasea: Erakundearen egoera soziolinguistikokoaren azterketa eta diagnosis, [Erreferentzia Marko Estandarra \(EME\)](#) aintzat hartuta.
Hiru ardatzek osatzen dute EME:
 - Erakundearen irudia eta komunikazioa: errotulazioa, harrera, publizitatea, web-gunea...
 - Kanpo harremanak: bezero elebidunekin ahozko

Cómo implantar un Plan de Euskera en una organización (Fases):

- Fase 1: Compromiso de la dirección.
- Fase 2: Análisis y diagnóstico de la situación sociolingüística de la organización.

nahiz idatzizko harremana, produktua edo zerbitzua, hornitzaileekiko eta administrazioekiko harremana...

- o Barne harremanak: informazioa eta komunikazioa, pertsonalaren administrazioa, laneko prestakuntza, ahozko harremana, lan-agiriak...
3. Fasea: Ardatz eta mailen lehenespina. Lantzeko helburuen aukeraketa. Planaren bitartez, eta zuzendaritzak onartuta, zein alderdi lortu nahi dituen lehenesteko garaian irizpide hauek erabil daitezke:
- o Lorgarritasuna: errazenetik zailenera eta orokorrenetik zehatzenera
 - o Eragin biderkatzailea
 - o Legezko betekizun izatea
 - o Kostu ekonomikoa
4. Fasea: Euskara plana
Erakundeak hainbat urteren buruan lortu nahi dituen ardatzak, mailak eta egitekoak, biltzen dituen agiria da. Urte anitzeko euskara plana, urtez urteko ekintza edo kudeaketa planetan zatikatuko da, eta hor jasoko dira gutxienez, erakundeak bideratuko dituen ekintzak. Diagnostiko fasean jasotako informazioaren gainean landuko da.
5. Fasea: Euskara planaren ebaluazioa eta emaitzei buruzko komunikazioa
6. Fasea: Euskara planaren berrikuspena, zuzendaritzaren eskutik

- Fase 3: Priorizar ejes y niveles. Elección de los objetivos que se van a trabajar.
- Fase 4: Implantación del Plan de Euskera.
- Fase 5: Evaluación del Plan de Euskera y comunicación de los resultados.
- Fase 6: Revisión del Plan de Euskera de la mano de la Dirección.

Baliabideak / Recursos

>> Diru-baliabideak

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak esparru sozioekonomiko pribatuko euskara-planei ekin ahal izateko finantzazio-lerroa arautzen du. Hortaz, urteroko deialdi bidez erakunde pribatuetan euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzen deialdia zabaltzen du.

>> Giza-baliabideak

Erakunde publikoek jartzen dituzte nahi duen ororen eskura euskararen erabilera eremu sozioekonomikoan sustatzeko giza baliabideak. Beren eskutik euskara-planak egiteko irizpideen, baliabideen eta tresnen gaineko aholkularitza orokorra eta laguntza teknikoak ematen dira.

Anualmente la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco y el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia regulan líneas de financiación para poder acometer los Planes de Euskera.

[Informazio gehiago jasotzeko jarraitu esteka honi](#) / [Para más información sigue este enlace](#)

Laguntza sistemak / Sistemas de apoyo

- Bikain, Euskararen Kalitate Ziurtagiria / Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística
[Informazio gehiago jasotzeko jarraitu esteka honi](#) / [Para más información sigue este enlace](#)
- LanHitz programa / Programa LanHitz

Informazio gehiago jasotzeko jarraitu esteka honi / Para más información sigue este enlace

Behatokiaren web gunea kontsulta dezakezu: <http://www.3sbizkaia.org> / Puedes consultar la web del Observatorio en: <http://www.3sbizkaia.org>

- Gure buletina zuzenean iritsi ezean eta izena eman nahi baduzu, edo jasotzen jarraitu nahi ezean, [jarraitu esteka honi gure web guneako kudeaketa-laburren atalera](#) / Si nuestro boletín no te ha llegado directamente y quieres suscribirte, o si no quieres seguir recibendolo [sigue este enlace al apartado de breves de gestión en nuestra web](#)
- Zure iradokizunak bidali ahal dizkiguzu / Puedes enviarnos tus sugerencias a promocion@3sbizkaia.org

